

AZALAREN EGILEA

«Haurrekin aritzeko bat-batekotasunari espazioa egin behar zaio»

Elena Rodríguezekin solasean



Ula I. Busturia
Arkitektoa eta EHUko irakaslea

Jasotze-data: 2016-04-03
Onartze-data: 2016-05-04

Elena Rodríguez arkitektoa Lro Detalleres-en ahotsa, gorputza eta arima da. Lro Detalleres-ek haurrekin lan-saioak egiten ditu; irudimenarekin bidaiak antolatzen dituela ere esan daiteke. 2013. urtetik haurrekin jolas-eremuak sortu ditu hainbat lekutan: trikitokin, childrenslab-en, Zawp-en, Arkitekto Elkargoan...

Aldiri: Zure etxea kolore eta mota askotako paperez, pegatinez, kartoiz eta margoz beterik da. Zure begirada beti ari da lanean haurrentzat interesgarri izan daitekeenaren bilaketan.

Elena: Nire haur-tailerretan formak, materialak eta kontakizun bat modu erraz batean lotzen saiatzen gara. Haur bakoitzak bere bide propioa aurkituko du lotura hori gauzatzeko; haurra helduago egiten den heinean, bere adierazpide propioa galdu egiten du eta nire lan-saioetan berreskuratu nahi dut bakoitzaren sormen «originala».

Lurrean lan egin ohi dugu, biribil bat osatuz. Nik bildutako material birziklatu berdina erabiliko dugu denok, eta eskolaren bukaeran ohartzen gara zenbat adibide desberdin egin daitezkeen mugatua dirudien material bat erabilia.

Lansaioretan beti gai nagusi bat proposatzen dut, baina zenbat eta esfortzu handiagoa jarri aurreikuspen-plan bat ezartzen, orduan eta behar handiagoa suertatzen zait bat-batekotasunari lekua egiteko. Lan-pautek errazak eta argiak izan behar dute, eta gainerakoak unean suertatzen diren elementu eta aktibitateei erantzun behar die. Plangintza batek ezin du irudimenarekin lortutako leku magikoa zapuztu, eta nire erronka aurreikusi gabeko beharrei erantzutea da, sortutako energiaren arabera gidaturik. Adibidez, «Baso nagia» ipuina irakurtzen nengoela, non hondeamakinek baso oparo bat puskatzen duten eta animaliek beren

bizilekua galtzen duten, umeak biziki eta indar handiz hasi ziren «hondeatzaileak, hondeatzaileak ekarri!» oihukatzen. Nahasirik utzi ninduten, une batez zer egin, zer esan jakin gabe gelditu nintzen. Horrelako egoerak ohikoak bizi ditut haurrekin lanean. Plan sorta bat eramaten dut badaezpada; eta haurren nahi, lantaldearen kopurua eta haurren adinen arabera, unean bertan erabaki eta egokitu egiten dut plana egoera jakinera. Lansaioak errepikaezinak dira eta elkarrekin egiten ditugun ikerketa-saioak dira: nik haiekin eta haurrek beren irudimenarekin, betiere nik proposaturiko tresnak direla medio.

A: Italian bizi izan zara zu. Italiak haur-hezkuntzan sentsibiltate berezia duela esan ohi da. Zer ekartzen duzu zure bizi-esperientzia italiarretik zure lansaioretara?

E: Erroman bi urteko Erasmus egin ostean Sizilia, Florentzia eta Lugurian lanean izan nintzen AADA (atelier ambulant d'architecture) elkarteko kide gisa, eta Leonardo europear lan-bekaduna izan nintzen. Garai horretan, Anna Lisa Peccoriello ezagutzeko aukera izan nuen, La citta bambina liburuaren egilea. Hiriaren, jolasaren eta haurren arteko loturak eta aukerak sakon ikertu eta landu dituen pertsona da. Erreferente bat alegia. Bera izan da nire erreferentea. Urte oparoak izan ziren haiek niretzat.

Hirian haurrek izan dezaketen partaidetza Andiamo a scuola da soli proiektuan landu genuen. Udalarekin batera, eta haurren ikuspegia prozesu guztian zehar presente izan zelarik, espazio publikoak haurren nahietara egokitzeko proposamenak egin genituen eta auzoko espazio publikoen bizitza-kalitatea hobetzeko gaiak definitu. Eragile askoren ekimen bateratua izan zen hura: auzo-elkarteak, haurrak, eskolak, udala eta AADA elkarteak. Esperientzia horietatik kolaborazio-lanaren garrantzia ekarri dut nire lansaioretara, hala nola materialen berrerabileraren gaineko lanketa.



Irudiaren egilea ~ Pirati

A: Ipuin baten irakurketa ez da sekula falta zure lansaioretan; objektu fisikoa, marrazkiak eta kontakizuna hartzen dituzu eskolaren egiturazailer bezala. Nolabait esateko, zure metodologiaren bereizgarri identitarioa da ipuina.

E: Oharkabeen hasi nuen haur-literaturaren gaineko grina Erroman bizi nintzela. Liburu-bilketa hori hazten joan da harrezkeroztik, besteak beste, Bruno Munari, Lela Mari, Gianni Rodariren lanak jasoz. Modu intuitibo batean bilaketan aritu izan naiz urte askotan, silentbooks deiturikoetan espezializatuz. Liburu horiek adin gutxiko haurrengana iristeko oso baliagarriak egiten zaizkit, irakurri gabe irudien bitartez ipuin zoragarriak asmatzeko gai direla frogatu baitut.

Hitzik gabeko ipuin batekin hasi ohi dut klasea. Taldean hitzak jartzen dizkiegu marrazkiei eta denon artean eraikitako ipuin bat osatzen dugu. Eskolakideak ezagutzeko modu erraz eta eraginkor bat izateaz gain, eskolaren parametroak ezartzen dira bide batez: parte-hartzea, askatasuna eta taldearekiko errespetua eta erantzunkizuna.

A: Zein da gaurko haur-literaturaren erradiografia?

E: Ordu asko pasa ohi ditut liburudenda eta liburutegietan liburuak ikuskatzen, eta ilustrazio-ipuinen garai on batean gaudela baieztatu dezaket. Hainbat haur-liburudenda espezifiko berriki atxiki dituzten arren —Bilboko Shopa eta Garabat—, ANTI eta Sopa de Sapo ipuinen argitaletxe onen aleak ekartzen dituzte gurera. Dena dela, nire bidaietatik beti ekartzen ditut ipuinak eta nire altxor preziatuenak atzerrian erosi izan ditut. Polonian argitaletxe ikusgarriak deskubritu ditut adibidez. Portugalen Planeta Tangerina eta Corraini italiarra esanguratsuenak dira. Nire egile preziatuen artean: Marion Bataille, Lucie Félix, Anne Bertier, Katsumi Komagata, Taro Miura... Ilustratzaile handien ezagutzak ere jaso ditut:

Raúl Guri, Noemí Villamuza, Isidro Ferrer eta Boloniako haur-literaturaren Feria mundu mailako erreferentea da eta bertan izateko ohorea izan dut.

A: Zure lansaioretan haurrak beti eraikitakoa etxera eraman izan ohi du. Opariaren bidez, binkulazio bat eraikitzen duzu...

E: Nire lansaioren helburuetako bat zera da, hurrek frogatzea material gutxirekin eta irudimen handiarekin gauza ikaragarriak asma daitezkeela. Guraso askok lansaiotik bukatutako objektu bat espero dute. Niretzat berriz, ezarritako lana bukatzea edo ez, gutxienezkoa da. Lan-saiotik etxera eramaten dutena egiteko modu bat da eta batez ere asmakizunetan aritzeko gogoia piztuta eramatea etxera. Bukatu gabeko objektua etxera eramatean, maiz etxean bukatzen du bakoitzak nahi duen moduan. Zenbait gurasok kontatu izan digute nola haurra «harrapatu» duten kartoi zatien bilaketan paperontzietan material bila. Kontakizun horiek poztasun handia ematen didate.

Erredakzioan itzulia.